

HIRIA ETA NORTASUN ALDAKETAK EUSKAL ELEBERRIAN

Ur APALATEGI

Idazle orok zilegitasun literarioa bilatzen du, unibertsaltasuna du jomuga. Eta zilegitasun literarioa eta unibertsaltasuna, biak batera, hiriak baino ez diezaizkioke eskaini, hiria baita unibertsalaren fabrika. Zehatzago izateko, hiriburu literarioak, Pascale Casanovak *La République mondiale des lettres* saiakeran emandako definizioaren haritik : hiriburu literarioa banku zentral sinbolikoa da, kreditu literarioa kontzentratzen den gunea, kanon literarioa egiten eta desegiten dutenen kokagunea. Aipatu liburua atal bateko epigrafe batean Rodolphe Töpffler XIX. mendeko autore suitzarrak laburbiltzen duenez :

behar-beharrezkoa da gizon horrentzat [idazlearentzat], fama lortuko badu, bere dohai merkea hiriburura eramatea, bertako [...] adituen aurrean erakustea, adituen lana ordaintzea, eta orduan bai, probintzietan erreparorik gabe eta lipar batean onartzeko moduko ospea fabrikatuko zaio. (Casanova, 1999 : 179).

Literatur sistema handienetako idazle hasi berrien kezka hiriburu literario nazionala konkistatzea izan ohi da. Oroit bedi Rastignac gaztearen aldarri famatua : « A nous deux, Paris ! ». Eta gainera, konkista hori zenbait kasutan –Parisenean, Bartzelonarenean, New-York-renean esaterako, hau da hiriburu literario desnazionalizatuenen edo kosmopolitenen kasuan– esparru literario unibertsal edo nazioartekoaren konkistaren sinonimo bihurtzen da. Harkaitz Cano batek bere modura, jazz musikariaren erran zahar bat gogoratuz, adierazten duen egia da hau : « *beste edozein tokitan arrakasta lortzen baduzu, ederra da pagotxa./Baina Manhattanen arrakasta lortzen baduzu, aixkidea, orduan Sagar handiari eginen diozu kozka* ». Espazio guztiak, hiri guztiak hortaz, ez dira-eta baliokide. Batzuk besteak baino literarioagoak izanki.

Euskal literaturaren kasuan zilegitasun literarioa eta unibertsaltasuna helburu dituen idazle hasi berriak beti izan ditu bi aukera garbi. Bata, euskarari uko egitea, Unamunok modu sonatuan egin zuenez, ez baitago euskara darabilen eta unibertsaltasuna bana dezakeen hiriburu literario nahikoa desnazionalizaturik Euskal Herrian, are okerrago, ez baita egon luzaz ezta zilegitasun nazionalik behinik behin eman zezakeen hiribururik. Bigarren aukera : euskaraz idatzi eta unibertsaltasunaren utopia ahanztea, jomuga zilegitasun nazionalera mugatuz. Baina bigarren aukera hau ere, bere xumetasunean, problematikoa suertatu izan da luzaz, aipatu moduan ez delako hiriburu nazional ez politiko ez literario ongi definiturik existitu edo existitzen Euskal Herrian. Nora jo orduan? Nori bota Rastignac-en erronka euskaraz idatziz gero? Funtsean, nola konkistatu ez badago zer konkistatu ?

Gure historia literarioa laburbiltzearen, luzaz hiria, paisaia literario gisa, ez da existitu gure testuetan, anbizio literariorik ez zegoen seinale. Eta agertu denean –Txomin Agirrerren eleberrietan– anti-eredu apokaliptiko gisa agertu izan da, eremu arrotz gisa, geneukan apurraren –alegia mundu errural euskaldunaren– apologia proposatuz. Ordu hartako anbizio literarioa eskualdekoa izan zen, literatura erregionalista zen egiten zena, asumituki bigarren mailakoa. Anbizio literario serioa erakutsi zuten lehenak autore abertzaleak izan ziren 30eko hamarkadan. Noski, unibertsalizazioaren utopia aipatzen dute –ikus Lizardiren zenbait olerki, hala nola « Parisko txolarrea »– baina zilegitasun nazionala dute egiazko erronka. Haatik, hiri euskaldunik ez dagoenez –eta bestelako hiririk ere apenas– prosa errealistari uko egin eta poesia sinbolistan aurkituko dute anbizio literarioa adierazteko tresna egokiena. Sinbolismoa hiri burgesaren aurka oldartuz literaturaren autonomia aldarrikatzen duen mugimendu poetikoa izanki –hiritar peto-petoez egindako poesia anti-hiritarra–, harri batez bi txori jotzen dituzte euskal olerkariak : literaturtasuna aldarrikatu eta hiriaren ausentziak sortzen duen arazo « teknikoa » saihestu.

Gerraostean agertuko da indarrez hiriaren problematika euskal literaturan, Mirande, Txillardegi, Aresti eta Saizarbitoriarekin, batik bat. Hiriaren agerpena, paisaia edo ekintza erromaneskoaren kokagune gisa, gauza paradoxikoa da garai hartako euskal idazleentzat : hiria eremu ez euskaldun gisa onartzea beste erremediorik ez zaie gelditzen eta hortaz euskal literaturaren periferikotasunaren aitortza da egiten dena. Baina aldi berean periferikotasun konsubstantzial hori gainditzen hasteko ahalegina ere bada ekoizpen literario hau. Bilbo euskalduna –Arestiren Bilbo Arestiren testuetan baino ez da existitzen, baina existitzen da harrez geroztik. Eta bestela atzerrira jotzen da –Miranderen kasuan Parisa, Saizarbitoriarenean Suitzara– euskal literaturari hiritartasuna emateko, alegia literaturtasuna emateko. Jakina, berritze edo eguneratze formal handi batekin batera joango da hiritartze ahalegin hau. Emaitzak emaitza, halere, zurruna da oso euskal literatura « moderno » hau

eta horregatik autonomiaren belaunaldia deritzoneko idazleek hiritartasuna aldarrikatzeko modu zeharkako eta bihurri samarra esperimentatuko dute 80eko hamarkadan : neorruralismoa. Zer den nagusiki hego-amerikarren errealismo magikoan inspiratzen den korronte literario hau? Bada, hiri euskadunik ezean begirada hiritarrak begiratu nahi zitzaion euskal paisaia naturalari –mundu erruralari–, bere itxitasuna, bere anti-unibertsaltasuna, hitz batean bere izaera anti-literarioa modu trajiko batean salatuz –ikuspegi honen paradigma eta dudarik gabe harribitxi literario konparaezina Atxagaren « Esteban Werfell » kontakizuna litzatekeelarik. Neorruralismoa, bestalde, hizkera literario sinesgarriago bat erdiesteko modua ere izan zen, euskara batu hiritar eta berriegiaren zurruntasunak sortzen zuen harrera arazoari irtenbide bat aurkitzeko.

Atxagaren *Obabakoak* liburuaren sagarapenak (1989) unibertsaltasuna euskaraz lor zitekeela frogaturik utzi zuen eta hortaz esan daiteke hiririk gabeko hiritartasuna iritsi zuela euskal literaturak, behar bada, kurioski, zilegitasun nazionalaren arazoa oraindik konpontzeke utziz. Hots, euskal literatur sistema oraindik ere hiriburu garbirik gabea da, ahula beraz bere egiturari bagagozkio, eta ahulezia honen zantzurik nabarmenena zera da, kanpotiko ezagupen sistemak –batik bat espainiar hiriburu literarioetatik datorrena (Madrid edoartzelona)– hobeto funtzionatzen duela bertakoak baino. Hots, Donostian, Gasteizen edo Bilbon —zer esanik ez Baionan– arrakasta lortzeko ez du ezer balio Madriletiko edozein ezagupen keinuren ondoan. Horregatik, behar bada, hiriaren arazoak zentrala eta funtsezkoa izaten jarraitzen du gure literaturan, modernitate literarioarenak ez bezala. Korronte literario garaikideenekiko homologazioa ez da jada arazo bat euskal idazlearentzat. Atxagaren zein Elorriagaren sariak bere konplexuetaz arindu dute euskal idazlea. Modernitatearen obsesioa iragana da. Aldiz, hiriburu literario euskaldun baten ausentziak hor dirau baita berarekin batera datorren legitimazio nazionalaren eskasiak. Hortik hiriaren obsesioa, batik bat eleberrigintzan. Modernotasuna edo unibertsaltasuna lortzea badago euskaraz, baina non lortu ? Non egin borroka ? Bernardo Atxaga, Euskal Herriaren ordezkari Euskal Hiriaren izena eta utopia proposatzen duenean, zentrala den ausentzia horretaz mintzo zaigu ez beste ezertaz.

Nire lan hipotesia euskal hiriaren ausentzia horrek sortzen duen gabezia sentipenaren konstatazioan oinarritzen da. Euskal idazleak hiriaz hitz egiten duenean gabezia hitz egiten digu eta hiriratzea obra hauetan agertzen diren pertsonaientzat nortasun aldaketa –gabezien konpentsazioa– gauzatzen den toki magiko-demoniakoa da. Hori frogatzen edo ilustratzen saiatuko gara hurrenez hurren Atxagaren *Ziutateaz*, Olasagarreren *Ezinezko mailetak*, Canoren *Piano gainean gosaltzen* eta Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia* aztertuz.

ZIUTATEAZ EDO GABEZIAREN GAIN-KONPENTSAZIO DEMONIAKOA

Hau da, apika, Atxagak gutxien aipatzen duen bere obra. Izan ere, bertan Atxaga demoniako bat agertzen zaigu, orduz geroztik landuz joan den itxura zuhur eta konpasibotik txit urrun dagoena. Eleberri labur hau oraindik euskal literaturan inor ez den idazle gazte baten aldarria da, bere anbizio megalomaniakoaren aitortza eta salaketa prospektibo bat. Scardenalli litzateke, hemen, Atxagaren *alter ego* demoniakoa. Laburbilduz, Scardenalli periferiatik hirira –alegia, boterea dagoen lekura– hurbilduko den pertsonaia anbiziotsu eta gupidagabea da. Modu generiko esanguratsuan « Ziutatea » deritzon hiria objektu literario abstraktu samarra da (batzuek frankismoaren alegoria bat ikusi nahi izan dute indar militarra eta eliza uztarturik agertzen baitira, baina ez da horretara mugatzen). Hiriari buruzko diskurtso ia oro bezala, hemengoa ere botereari buruzko gogoeta bat da. Scardenalli guttiz nihilista da eta bere botere gose asegabe bezain krudela gutxiagotasun konplexu bortitz batean oinarritzen da, liburuaren eskaintzetako batean agerian geratzen denez :

[...] ez zait gustatzen ne(re) begirada / ezta nere gorputza / gorrotatzen dut bular erdiko / kartoiezko bihotza / [...] ai amaren haragia nitaz / inoiz erditu ez balitza / nigatik putzu batean ito / bitez gizon boteretsuak / erori elizetako hormak / lurra jo palaziuak [...]
(Atxaga, 1976 : 14).

Bere buruarekiko gorrotoraino iristen da Scardenalli –« kobarde bat naiz, nire aita bezala » (Ibid. : 25)–, eta berea ere baden sortzezko izaera periferiko hori patu ekidinezina bailitzan onartuz bizi direnak mespretxatzen ditu :

ni ere, beraz, estupidoen mundukoa izan naiz. [...] Ebaki nituen gauza hilezinekin [natura, erruraltsauna, balore tradizionalak] lotzen ninduen [sic] zilbor hesteak, eta, bizitzaren ertz batetik, panpina ustel bat izatetik kitatu naiz betirako. Eta hondartza bateko zomorroak bezala ikusten ditut gaur mundu honetara neurekin etorri ziren beste guztiak [...] Scardenalli putrea da [bere « zizaregoa » utzi du], sugea da, beste zomorro guztiak mespreziatzen ditu. (Ibid. : 35).

Hiriko Borrero handiaren menean sufritzen duten biztanle xumeak irringarri zaizkio Scardenalliri eta gisa berean trufatzen da erresistentzia ahalegin ahul bezain inuxentetan indarra eta bizia galtzen duten Ikaroetaz. Ikaroak, obraren irakurketa politiko-alegorikoan, antifrakistak liriateke. Hegaldatzen saiatze hutsagatik exekutatzen dituzte Ziutateko agintariak, jakina, exekuzioak jendetza sometituarentzako ikuskizun bihurtuz. Ikaroak hiritik baztertuta dagoen uharte ezkutu batean bizi dira eta beraien buruzagia Hyeronimus da –azken indioaren izena?, euskaldunak azken indiotzat hartzen gaituztelarik.

Bada, hastapen batean Ikaroeekin bat egiten duela dirudien arren, Scardenallik birritan pentsatu gabe salduko ditu hauek bere helburuak lortzeko. Traizioa, hilketak, torturak... Scardenallik giza moral arruntak debekatzen duen oro gauzatu du Ziutatearen gailurrera iristeko. Zapaldua eta periferikoa izatetik libratzeko dakusan bide bakarra zapaltzaile eta zentral bihurtzea baita, bere buruaren eta hurbilekoen ukaziora badarama ere aukera honek : « Hemendik aurrera, kontuz nirekin lagun zaharrak, kontuz ama, kontuz Inexa, kontuz, kontuz » (Ibid. : 31). Ez dago hemen periferiaren eta gabezien idealizaziorik. Utikan porrotaren eta ahuleziaren ikuspegi erromantiko edo kristaua. Scardenalli faszista bat da, bere sortzezko gabeziaren mendekua hartu nahi duena :

zerbaitek esaten dit [...] ziutate honek eguzkiaren pareko egingo nauela. Eta hala, mendekantza kunplitu geldituko da. (Ibid. : 41).

Pisikoanalisiaren ildotik epaitu behar bagenu Scardenalliren « kasua » konpentsazio fenomeno baten aurrean gaudela esango genuke. Alfred Adlerren teoriaren arabera, bere jatorrizko gutxiagotasuna gainditzeko edo konpentsatzeko haurrak forma ideal burutu bat bilatzen du. Gertatzen dena da kasu batzuetan konpentsazio prozesua desbideratu eta gain-kompentsazio bihurtzen dela, agresibitate bihurtuz eta munduaren ikuskera irreal batera eramanez gizakia. Hori gertatzen zaio Scardenalliri.

Bai, laster, ziutateko borrarero nagusia izango naiz, erregearen hurrengoa, Loiolaren parekoa [Loiola elizaren boterea sinbolizatzen duen pertsonaia da], eta palaziorik altuenetako batera pasako naiz bizitzera (Ibid. : 50).

Scardenallik gutxiagotasun konplexutik zuzenean gehiagotasun konplexura igaro ohi diren idazle faszista zenbait dakarzkigu gogora. Esaterako, gaztaroko Cioran errumaniarra, edo gure Mirande bera ere. Baina kontuz, Scardenalli ez da Atxaga. Aitzitik, badirudi Atxaga gazteak Scardenalliren figura darabilela behin betirako handinahi faszistoiderearen tentazioa uxatzeko. Prozesu katartikoa bide da *Ziutateaz*-en idazketa euskal mendietatik datorren Atxaga oraindik anonimo eta ezdeusarentzat. Baina interesgarria da ikustea nola aldi berean nazka eta lilura eragiten dizkion Atxagari Scardenallik, obraren idazkera sutsuak salatzen digunez. Ez dezagun ahortzi 23 urteko gazte baten obra dela *Ziutateaz*.

OLASAGARREREN *EZINEZKO MALETAK* EDO GIZARTEA ETA KOMUNITATEA KONTRAJARTZEN DIRENEKOA

Soziologia klasikoak egiten duen gizartearen eta komunitatearen arteko bereizketa aintzat hartu behar da Olasagarreren pertsonaia nagusiaren hiri-

nahia ulertzeko. Teoria soziologikoaren arabera, jakina denez, gizartea espazio profano eta anitza litzateke, nahasketa eta erlatibitatea gertatzen diren tokia. Komunitatea –edo gizarte tradizionala, nahiago bada–, berriz, sakratuaren mende dagoen espazio bateratua litzateke, zeinetan desberdintasun oro taldearen orekarentzat mehatxugarri suertatzen baita. Bada, Olasagarreren eleberriko Carlos Urretabizkaia « Bazter » pertsonaia arrazoi horregatik joaten da hirira, bere desberdintasunak –homosexuala da– ez duelako tokirik Lekunberri-Aranaz bezalako herrixa euskaldun batean, eta metonimikoki ulerturik, homosexualitateak ez duelako tokirik euskal proiektu abertzalean. Atxagak deitoratzen duenez, Euskal Herria, abertzaleek ulertzen omen duten moduan, herri bat delako oraindik –komunitate « endogamiko » bat Olasagarrek esaten duen moduan–, eta ez izan beharko lukeen hiria –edo gizartea.

Garbi dago Olasagarrek Atxaga baten –edo gutxienez « autonomiaren belaunaldia » deitu izan den taldeko kideen– diskurtso politikotik edan duela eta ez da behar bada kasualitatea bere pertsonaiaren izena. Carlos izenak Atxagaren *Gizona bere bakardadean* eleberriko protagonista dakarkigu gogorra –Euskal Herriarekin moztu eta Bartzelonara bizitzera joaten den pertsonaia. Urretabizkaia abizenak, berriz, abertzaletasun estutik harat doan aldarrikapen feministarekin zerikusia duen idazle bat oroitaratzen digu ezinbestean, eta azkenik « Bazter » sasizena bera ere gardena suertatzen da pertsonaiak euskal munduan izango duen izaera marginala adierazteko unean. Ezizena, bidenabar, komunitateak gizabanakoari inposatzen dion nortasuna sinboliza dezake :

bazter, joder, Bazterren izena Carlos Urretabizkaia duk, amazon inork hala hots egiten ez bazion ere (Olasagarre, 2004 : 12).

Hori da, izan ere, arazoa, herrian ezin dela norbera dena izan, baizik eta besteek erabakitzen dutena. Olasagarreren pertsonaien hizkera erabiltzeko, « sustraiek ito egiten dute batzuetan » (Ibid. : 149). Bizi ahal izateko, beraz, hirira alde egitea beste erremediorik ez dauka Bazterrek... edota iraultza sozial baten bitartez herria bera hiritartzea. Hori da 70eko eta 80eko hamarkada hasieran ezker abertzalearen utopiak sinetsiaraziko diona Bazterri, horregatik sartuko da bere koadrilakoek herrian sortzen duten ETArekin komandotxoan. Baina herrian antolatu duten rock kontzertu abertzale baten karietara lagun taldeko Ferminen « Gora iraultza sexual » pankarta irekitzen duenean eta ekintza horrek lagunengandiko trufak baino erakarriko ez dizkiola ikusirik ulertzen du bat-batean Bazterrek hala betidanik homosexuala izan dela, nola homosexualentzat ez dagoela tokirik Aranaz-Lekunberriin :

amestutako iraultza hark bere buruarengandiko askapena ekarzekioneko esperantza eta heterosexal bihurtu zedineko beharra ezi-

nezko zitzaizkiola ohartzean, nahi eta ezinaren arteko sarean trabatu zen ; bere bizitza ez zuela inoiz irudikatu erabaki behar izan zuen, ametsa kolektiboa baitzen, eta kolektiboan gauzatuko zen oro banakakoari zegokion afan, nahi eta desira oro. Ohartu zen Lekunberrin egin zuen bidea egitea zela errazena, xenda trazatuari jarraitu, alegia ; bere kasuan, ordea, akats bat zegoen, eta akats horrek zeraman orain Londresera ; akats horretan zetzan eskura uste izan zuteneko Euskal Herri aske hartako biztanle, aske, esan beharko luke, ez bilakatzeke arrazoia, baina beti izaten duk akats bat. (Olasagarre, op.cit. : 151).

Londresen pub bat ireki eta « familia » berri bat osatuz joango da Carlos, Marck mutil lagun « ofiziala » eta Ike amorantearen artean banatuko delarik aurrerantzean bere bizitza sentimental. Marckek atzean utzitakoa eta egindako aukera existentziala asumitzen lagunduko dio Carlosi, besteak beste iraultza politikoa « beti arra » dela azalduz eta Carlosek onartuko du bera ere zentsuratzailerik izan zela hainbat urtetan, ezinbestean : « herriak eta neronek, zoritxarrez neronek ere bai, ezarri lege estuaren hesietatik kanpo ateratzen zen oro izendatzen genuen keria » (Ibid. : 147). Marck teorizatzaile ere bihurtzen da eleberriarren zenbat pasartetan :

azpimarratuko zuen Marckek, hiritarrak eta herritarrak bereizten zituena, herritarrei background bera suposatzen zitzaizela eta orduan background horrek berebiziko garrantzia hartzen zuela, bazterketaren irizpide izateraino eta aldiz hirian denek zutela background desberdina, eta horregatik background horrek garrantzia galtzen zuela onargarritasun irizpide gisa (Ibid. : 80).

Hortik aurrerakoa, nobelak egiten duen benetako galdera, honakoa da : hiriratu eta nortasunez aldatuz gero zer gelditzen da iraganetik, jatorrizko nortasunetik, herritartasunetik? Deserrotzea erabatekoa al da, ala zeozer, arrastoren bat, gordetzen da? Carlosen erantzuna erradikala da, berak ez dauka zerikusirik Bazter deitzen zuten horrekin. Marckek bere « evil basque character » aipatzen dion bakoitzean zera erantzuten dio Carlosek, « ez zela herriei zegokion senik, senak, izatera, banakoarenak zirela, bizimoduak, paisaiak, gizarteak zizelkatuak baina banakoarenak » (ibid. : 42-43). Euskal Herrira bisitan eramateko eskaera behin baino gehiagotan egiten dion bizilagunari « Zertarako joan nahi duzu hara? » (ibid. : 43) erantzuten dio Carlosek. Eta oso tarteka gurutzatzen dituen herriko koadrilako lagunak gurutzatzen dituenean –Londresen, jakina–, erabateko desagerpena leporatzen zaio : « hirian bizi haizenetik ez zeukaagu hire berririk » (ibid. : 15). Bere ehorzketara Londresera hurbildutako lagun koadrilako kide batek laburbiltzen du egoera : « Aspaldi, aditzen duk, aspaldi utzi zioan euskaldun izateari » (ibid. : 208). Iragana eta norberaren herritartasuna ezinezko mailetak bihurtzen dira, nobelaren izenburuak iradokitzen duenez.

Carlosen erantzuna, hortaz, garbia da, herritik hirira joatean ezin da maletarik eraman. Adierazgarria da nola duda-mudan ibili ostean Carlosek, halere, Mikel Laboaren zein Hertzainak eta Zarama taldeen diskoak nahiz Bernardo Atxagaren *Etiopia* olerki liburua maletan sartzea erabakitzen duen behin betiko bidaiaren atarian dagoela. Eleberriak, ordea, ironikoki desegiten du Carlosen nahikeria nostalgiko hau maleta aireportuan betirako galduko baita. Gauza bera gertatuko da eleberriaren amaieran Carlos zenduaren errausak Euskal Herriko mendietan barreiatu gogo dituzten koadrilekoek errausen potea galtzen dutenean. Ez dago ezer eramaterik, ez dago itzultzerik.

Haatik, Olasagarreren ikuspegia ez dateke bere pertsonaiarena edo nobelarena bezain erradikala ezen, nobelak kutsu autobiografiko aitortua duela jakinik, ohartu beharrean gaude euskaraz eta Euskal Herriko sistema literarioari begira idatzi eta argitaratu duela euskal gizartearen hertsitasuna salatzeratorren deserrotze istorio hau. Apika euskal literatur sistema azken urteotan eremu politikoarekiko autonomizatu den seinale baikortzat hartu beharko genuke hau. Olasagarrek sinesten du euskal literatura nahikoa eremu zabala bihurtu dela ikuspegi « hiritar » bat bere baitan onartzeko eta irakurlegoaren begirada « hiritarra » jasotzeko.

CANOREN PIANO GAINEAN GOSALTZEN EDO DESPERATELY SEEKING ART

Harkaitz Canoren obra literarioa pixka bat ezagutzen duenak badaki idazle honen kezka nagusietako bat idazle izateari lotuta dagoela. Canorentzat, apika, literaturaren funtsa ez dagoelako obretan, baizik eta idazlearen nortasunean. Bestela esateko, Canorentzat literatura idazleak dira, obra guztien gainerik. Obren justifikazioa idazlearen figura artistikoa bermatzean datza. Eta horrek bertigoa sortzen du: zerk ziurtatzen dit artista naizela ? Fedek, ez daukanez oinarri objektibo edo finkorik, etengabe dago kolokan eta idazlearen baitan beti dabilta borrokan batetik artista izatearena iruzurra delako uste kulpabilizantea eta bestetik genio artistiko bat delako esperantza. New Yorkera egindako idazketa-bidaiaren zergatia ez da oso ezberdina. Hemen ere, irakurlearen sedukzioa eta txunditzea ageri da azalean baina azpian bizirik dirau bere buruarekiko galdezketan obsesiboak : benetako idazlea al naiz ? New-York metamorfosia gertatuko den hiria izatea espero du Canok.

Alde batetik beraz, irakurlea txunditzeko beharra. Eta zer egokiagorik, horretarako, New York hiria baino ? Izan ere New York urruti dago, jende

gutxi du eskura, eta mundu artistikoaren edo arte mundialaren bihotzean kokatzen da. Ez dago munduan hiri errepresentatuagorik egungo media artistikoetan (literatura, zinema, kantagintza, pintura...). Kale kanto bakoitza erreferentzia artistiko bilaka daiteke. Canoren hitzak hartuz : « Zine munduko fetitxistentzat paradisua da hiri hau » (Cano, 2000 :15). Literaturaz kutsatutako hiri honetan ez da harritzekoa Cano ohartzea bera bizi den etxean bizi izan zela berak pertsonaia literario gisa erabilitako aktorea underground bat (Lupe Velez) : « Eta orain, lau urte beranduago, hara non nire pertsonaia bizilagun bihurturik aurkitzen dudun » (Ibid. :25). Han ez dago literaturan pentsatzen jarri beharrik, hiriak berak eragiten ditu ameskeria literarioak : « Batzutan irakurgai eramaten dut labandieriara, baina beste batzuetan eskotilatik begira geratzen naiz, Julio Vernereren istorio bateko protagonista banintz bezala » (Ibid. : 127). Dena da aitzakia literatura egiteko : « Argindar instalazio zahar asko dagoelako edo ez dakit zergatik, baina suteak ugari dira. Narrazio eta ipuinei amaiera emateko era egokia izan daitezke suteak » (Ibid. : 138). Literatura guzti hau kontenitzeko liburudendak ere neurritan eginda egon behar : « Liburudendak ikaragarriak dira hemen : mahaia eta aulkiak daude, bertan eseri eta kafea hartuz nahi duzun liburua irakurtzeko [...]. Makina bat liburu ari naiz irakurtzen » (Ibid. : 19). Zerrenda hau nekerik gabe luza genezake... Hain da literarioa tokia non Cano bere *Beluna Jazz* eleberriko Bob Ieregi saxofonista New Yorkar guztiz imaginarioaren bila ere hasiko baita listinak lagun dituela. Oraingoan ez du zortetik izango. Gehitxo litzateke.

Toki bat literarioa da literaturaz kargatua dagoelako baina baita ere, txanponaren beste alde, sorkuntza berrietarako inspirazio iturri delako. Bi alderdi hauek elkartzten dira Canoren bizileku new yorktarrean : « Tuberkulosia harrapatzeko leku aproposa iruditzen zait [Mme Bovary eta beste hainbat pertsonaia famaturen eritasuna]. Definitiboki literarioa. Orain idaztea besterik ez zait falta » (Ibid. : 67). Eta hala gertatuko da, hirian oin hartu bezain laster jartzen zaizkio martxan Canori pulsio artistikoak : « Paper erreziklatuzko patrikako uzta koadernotxoan lehen hitzak idatzi ditut [...] eta gero poema simulakro bat [...] Gaur marrazteko gogo daukat » (Ibid. : 17-18). Urrunago : « Bi poema posibleren zirriborroak ekarri ditut etxera » (Ibid. : 22). Baina estimulo artistikoa orokorra da, ez da literaturara mugatzen : « Kamera hartuta zubira txuribeltzeko karrete bat botatzera abiatu naiz [...] Hiri honek argazkilari sena, margolari sena, zerbait egiteko sena pizten ditu. Arratsalde oso eman dut argazkiak ateratzen » (Ibid. : 95-96). Gauzak gaizki doazenean ere –idazteko inspirazioa ez denean inondi ageri– New Yorkeko Canoren artista sena kitzikatzen darrai : « hutsune handi bat sentitu dut. Enbalatzeko papera lurrean itsatsi eta pintzel pare batekin garabato bat egiten hasi naiz, desahogatzeko » (Ibid. : 86). Idazleak aitortzen digunez, “idazten ari zarenekin bizi eta murgiltzeko era bat dela horrelako leku batean bizitzea” (Ibid. : 85).

Kontua da hiria, dekoratu artistiko-literario erraldoia izateaz gain, artistaz beteta dagoela, lepo eginda. Sarrera eta epilogoak kenduta liburua osatzen duten 38 kroniketako baten tituluak iradokitzen duen bezala (« Bohemia eta glamourra ») bidaia hau, Harkaitz Canorentzat, XIX. mendeko idazle zein artistek Parisen egiten zuten bohemaldi artistikoaren pareko litzateke. Alegia, bizimodu artista bat eramanez inspiratzeko ahalegin bat, hiriburu kosmopolitenera helburu berarekin hurbildutako hainbat jenderekin nahastuz. Eta, hala, bohemiarren mitoaren ezaugarri gehienak bereganatzen ditu Canoren egonaldia amerikarrak : diru gutxi, auzune erdi-pobre erdi-sofistiktua –Williamsburg–, etxe-bizitza erdipurdikoa –*loft* konpartitu bat–, giza-fauna anitza –maila sozial guztietako jendearekiko harremana. Hala ere, bohemioarentzat garrantzitsuena beste jende bohemioarekin egotea da, elkar-ezagupen errittoa bailitzan, eta jende bohemioaren bilaketan dihardu beti Canok, espezie zoologiko baten atzetik usnaka bailebilen : « *artista jendea* bizi bide da hemen » (Ibid. : 61, guk azpimarratua). Eta ez daudenean bizirik, hildako artisten arimak arnasten duen airean somatzen ditu Canok : « Eta hor abiatu da [Cano, bere buruaz hirugarren pertsonan], batere jendekin ez den idazle isila, Julian Schnabel pintore eta zinemaegilearen jabetzakoa den Chelsea Hoteleko gelara [...] eta hor goaz, elurretan oinez, Jim Morrison, The Beatles, The Eagles eta beste hainbestek kantuak eskaini eta bolada luzeak eman zituzten Chelsea Hotel mitikora » (Ibid. :96). New Yorken gurutzatuko dituen euskaldun bakarrak ere, nola ez, artistak : « Alexek, urte batzuk dramatzatza New Yorken eta, besteak beste, musika tresnak asmatzen ditu » (Ibid. : 29). Ainhoa Arteta diva euskaldunarekin ere afaria izango du Harkaitz Canok eta hiriko Euskal Etxera hurbilduko denean Alex eta honen lagun artista batekin bertako euskaldun tradizionalak harrituko dituen performance artistikoa burutuko dute : « Alexekin Euskal Etxean zerbait egitekotan geratu gara. Bruce Mc Clure izeneko bere lagun batek super-8ko filmak azidoz erre eta koloreztatuz oso efektu bereziak lortzen omen ditu. [...] Euskal Etxeko xahar guztiak jo ta ma geratu dira Bruceren irudiekin eta Alexen musika tresnekin » (Ibid. : 30-33).

Egia esan, eta hau da liburuaren enkantuaren arrazoietako bat, oharkabean errealismotik ihes egiten du Canok, eta badirudi hiri horretan bizi den oro dela artista deklaratu edo izkutukoa. Entzun bestela :

« New Yorken inork ez dizu esango aroztegi batean lurra berdintzen, hormak margotzen edo testuak ordenagailuz garbira pasatzen lan egiten duenik, bere diru iturri bakarra hori izan arren. Larunbatetan izebaren tabernan diskoak jartzen dituen arotzak “musikaren negozioan” dabilela esango dizu, laburmetraia batean extra bezala lan egin zuen horma margotzaileak *filmakerra* dela etabar. Miresgarria da izpirituan bakarrik duten lan horri halako adoreaz eustea » (ibid. : 116).

Azken esaldi hau errepikatu behar dut : *miresgarria da izpirituan bakarrik duten lan horri halako adoreaz eustea.*

Idazlea fikziozko pertsonaia da beti, *izpirituan bakarrik duen lana* delako berea, eta Ana Urkizak, liburuaren aipamen kritikoa egiterakoan dioenez :

New Yorken, bestalde, idazle-bisitariak bere burua aurkitzen du eta berdefinitu egin behar izango du bere kokalekua. Literaturak fikzio hori ulertzen eta bizitzen lagunduko dio baina delako fikzio hori bizi ondoren, Canok etxera bueltatu-beharra dauka, idazle egina (Urkiza, 2001).

Beste hitzetan esanda, New Yorkeko egonaldia Canok errito inizatiko bat bailitzan pentsatu du, idazle dela segurta liezaiokeen errittoa hain zuzen. Hori, bidaiaren jatorria eta prestakuntza aipatzen zaizkigunean geratzen da agerian. « bi urte pasa nituen jende guztiari New Yorkera joan behar nuela esanez » (Ibid. : 9). JFK aireportuan lur hartu baino lehen, hegazkinean oraindik, bertako aduanara heltzean eman beharreko papertxo bat betetzen ikusten dugu Cano : « Zalantza momentu bat izan dut laukitxo horretara heltzean. Ogibidea galdetzen dit. Writer and Journalist idatzi dut lotsagabe. Gehitxo akaso? » (Ibid. : 12). Bere literaturaren eta bokazioaren iturburu mitologikoa den hirira heltzean biluzturik sentitzen da eta azterketa bat pasatzera joango balitz bezala sentitzen da betiereko idazle-gaia : « Mesfidantzaz begiratu ote didate nire ibilera sosegatua ez delako, edo sosegatuegia delako? Nire editoreak egindako kontratu faltsu bati esker, urtebeteko bisa lortu dut. *Artistei* emate zaien horietakoa. Hona zer dioen kontratuak : argitaletzeak nire egonaldia eta gastu guztiak ordaintzen dituela New York blues izeneko liburua idazteko baliatuko ditudan bederatzi hilabeteetan » (Idem). Jokoan dagoena idazle izatea da eta bederatzi hilabete haurdunaldi literarioaren ostean (idatziko al du bere liburua ?) jakingo da idazlea sortu den ala ez liburuarekin batera.

Egonaldiaren bukaera Canok « New Yorken idatzi beharreko liburua » (Ibid. : 178) kostata baina idatzi duela esaten digu. Eta sinbolismo gardeneko azken ekintza bat bururatzen zaio orduan : « karta bat idatzi nion nire buruari : erremitean nire Brooklingo helbidea jarri nuen eta kartazalean berri Donostiakoa. *Bi pertsona ezberdin izango ziren finean karta idazten zuena eta jasoko zuena.* Kartazala itxi aurretik diskette batean New Yorken idatzitako eleberriaren kopia bat sartu nuen. Superstizio kontuak. Badaezpada ere, hegazkina eroriko balitz edo. *Beste ahalegin bat gure bizitza literarioa izan dadin* » (Ibid. : 178, guk azpimarratuta).

MONTOIAREN DENBORAREN IZERDIA EDO ASIMILAZIOAREN MUGAK

Montoiak bere orain arteko eleberrri onena plazaratzen duenean –2003koa da *Denboraren izerdia*– hogeita sei urte igaro dira Atxagak *Ziutateaz* argitaratu zuenetik eta euskal eleberrriak ez dira jada alegorikoak, ezta neorruralak ere. Euskal eleberrigintza errealista bihurtu da, ironikoa –heldutasunera iritsi den seinale agian. Euskal sistema literarioa osatua dago : irakurleko alfabetatu eta ikasia existitzen da, kritika literarioa profesionaldu da idazleekin batera eta industria kultural txiki baten aurrean gaude. Bestalde, gorago iradoki bezala, euskal literaturak bere behialako anakronismo estetikoak gaingitu du eta modernitatearekiko konplexu zaharraren azken arrastoak Atxagaren sari nazionalak eraman zituen.

Horregatik, behar bada, Montoiaren heroi edo anti-heroia Madrilerá doanean ez da izenik ez duen toki batetik abiatzen Scardenalli bezala, Gasteiz EAeko hiriburu politiko-administratibotik baino. Halere, gordetzen du loturarik Jon Ezenarro zinema ekoizle madriltartuaren istorioak Scardenallirenarekin.

Scardenalli bezala, Ezenarro bere gaztaroan « Ikaroa » izandakoa da. Hots, klabe errealistan, ETAkidea. Eta, Scardenallik bezalaxe, bere anbizio pertsonalak hala agindu dionean Ezenarrok ere Ikaroei bizkar eman eta hiria konkistatzera jo du, 70eko hamarkadako utopia ezkertiar-iraultzaile-abertzalearen arropa estuegi bilakatuak zailtasun edo eskrupulo gehiegirik gabe erantziz. Iparraldean (Euskal Herriko iparraldean, hau da Frantzian) ETAp.m.-kide gisa eginiko egonaldia Gasteiz itxi eta gabezia jositakotik ihes egiteko modu bat izan bide zen Ezenarroentzat –ez dezagun ahanzi ETAk izan zuela hamarkada urrun haietan Europa osoan halako glamour berezi bat, halako unibertsaltasun kutsu bat, Frankok zutik zirauen bitartean– harik eta iraultza abertzalea kontserbatismo nazional bat gehiago bihurtu zen arte. Orduantxe jo zuen Madrilerá Ezenarro.

Zer eskaintzen dio, baina, Madrilek Gasteizek eskaintzen ez dionik? Dударik gabe, beti ere Casanovaren definizioaren arabera, hiriburu literario batek ezinbestekoak dituen bi ezaugarriok : liberaltasun politikoaren ospea eta kapital literario –Ezenarroren kasuan zinematografikoa– metaketa. Gasteizen ezin bizitza liberalik –moderno edo postmodernorik, alegia– eraman, eta ezin zinema egiteko egiturarik aurkitu. Literatura nazional txikiaren eta egiazko literaturaren –hots, unibertsalaren, hiriburu literario handietakoaren– arteko amildegia ezin hobeto metaforizatu du Montoiak zinemaren munduan jarriz bere pertsonaia.

Bi hirion arteko desberdintasuna –hiritxo nazionala eta hiri kosmopolita– Ezenarroren bizitza sentimentalaren iragana eta oraina erkatuz adierazten

digu Montoiak. Gasteizen Elena eder, abertzale eta aratzarekin ezkondurik eta zinezko monogamian bizi zelarik, Madrileran joan denetik panorama sexual konplexuagoa eta agian kitzikagarriagoa da berea : alde batetik ETArekin mehatxupean madrildarturiko euskal enpresario baten alaba Anarekin senargai bizitza txukuna darama, baina bestetik Maria Isabel, Itziar edota beste hainbat maitalerekin jotzen du larrua ahal duen guztietan.

Hiriburu batera joateak nortasun aldaketa eragin dio Ezenarrori, edo uste horrekin bizi da behintzat (zeren nobela aurrera joan ahala ohartuko baikara ez dela hain erraza asimilatzea). Guztiz bestelakotua ikusi nahi du bere burua Ezenarro, iraganeko Ezenarro ahantzi nahi bailuen (Scardenallik bere jatorria eta iragana ukatzen zituen moduan) :

Elena, gosarian atseginez aldamenean onartu zuen bakarra, aitor-tu beharra dago. Elena abertzalea. Bere izen-abizen bereko gazte baten emaztea (Montoia, 2003 : 13).

Ezenarrok sinetsi gura du, Sarrionandiaren pastitxea egiteko, bera ez dela jada « hangoa ». Euskaldunak arraroak direla esaten dion amorante bati –« hainbeste hilketa, hainbeste izugarrikeria »– zera erantzuten dio : « Doazela pikutara ! Ni, zorionez, hemen nago, hemen bizi naiz, ez han » (Ibid. : 54). Eta Madrilen bizi arren bozkatzeko Euskadin erroldatzen direnei barre egiten die, alferrikakoa iritziz ahalegin horri : « Frantzia hasieran, Madrilen orain, Euskadin baino luzeago bizi izan naiz erbestean. Bueltatzen naizen bakoi-tzean arrotz ikusten dut han neure burua » (Ibid. : 55).

Egia esateko, Scardenallik bezala –azken honek behiala bera lagundutako Hyeronimus Ikaroen buruzagia salatuz egin zuen gora Ziutateko boterearen hierarkian–, Ezenarrok bere utopia abertzale-ekzertiarra salduz –hitzaren zentzu guztietan– antolatu du bere negozioa Madrilgo zinemaren mundutxoan. Eta bere arrakastarik dizdiratsu eta sonatuena terrorismo abertzalea salatzen duen *Libertad* izeneko filme bat ekoiztuz lortu berri du nobelaren hasieran.

Bere arrakasta madrildarraren atalaitatik ikusita, gonbidatzen duten errepezio glamoursoetatik begiratuta, konkistatzen dituen emakume desiragarrien hankatartetik hausnartuta, Gasteiz bezalako hirixka nazionala ezdeusa eta mespretxagarria iruditzen zaio, Scardenalliri bere sorlekua eta bertako jendea erdeinagarri iruditzen zitzaizkion bezalaxe :

urte askotan Madrilen bizi ondoren, harrigarria zaio hiri tipietako bizimodua, bertako jendearen arteko harreman mota, denek elkar eza-gutze hura. Harrigarria bezain itogarria, bestalde. [...] Aukeran, hiriburu handietako anonimotasuna nahiago. Dena dela, Gasteiz bezalako hiritxo –bai, hiritxo, bertako biztanleek eta bereziki alkateak bestela uste arren– batera etorri behar izan du anonimotasun [...] bila (Ibid. : 125).

Zergatik itzuli behar izan duen Gasteiza? Bada, bera bezalako odol hozteko animalia den beste euskaldun madrildartu batek –Itziar Urzaga *El Mundoko* kazetariak– ez diolako barkatu umilatu izana. Urzagarekin oheratu ondoren honek elkarrekin bizitzen jar zitezkeela iradoki dionean gupidarik gabe baztertu du emakumea Ezenarrok. Mendekuz, Urzagak artikulu bat kaleratzen du *Libertad* filmaren aurkezpen ospakizunen erdian non salatzen baita garai batean Ezenarro ETAp.m.-ko komando baten diruzaina izan zela. Eta, jakina, euskal terrorismoaren aurkako madrildar giro inkisitorialean –PPren gobernupeko urte gogorrenetan gertatzen da istorioa– *persona non grata* bihurtuko da Jon Ezenarro artikulua plazaratu bezain laster. Kurioso da, bestalde, ikustea nola, metaforari eutsiz, bere iragana Urzagak agerian uzten duenean, amorante guztiak desagertzen zaizkion bat-batean Ezenarriori, berriro ere bizitea sexual pobre batera itzuliz.

Hortik aurrerakoa, eleberriaren bigarren zatia, Gasteizen kokatzen da osorik. Iraganeko mamuekin berriro bizi beharra tokatuko zaio Ezenarriori, Madrilgo sorgin ehizatik ihes egingo badu, harik eta ETaren bonba baten biktima bihurturik berriro Madril onartua den arte, happy end ironiko bezain interesgarria osatzen duelarik Montoiak.

Nobelaren drama, azken beltzean, honakoa da : urtetan kontrakoa sine-tsi nahi izan duen arren Ezenarrok deskubritzen duela, Urzagaren jukutriaren ondorioz, Madril unibertsal, liberal eta artistikoki autonomoaren atzean, Espainar Estatuko hiriburu itxi eta nazionalista bat gordetzen dela, bere jatorrizko Gasteiz hura bezain estua eta antiglamourosa, Julio Medemak boikotatzen dituen Madril bat, edota Atxagaren *Gizona bere bakardadean*-i aurpegi txarra jarri zion Madril hura. Hots, Madril ez da Paris.

Hiriratz bere nortasuna ahantzi edo ezabatu nahi izan duen pertsonaia dugu Ezenarro, Madril dar bizitzara asimilatu nahi izan duen pertsonaia. Zein den bere nortasun sakona ? Bada, hirigabearena, boteregabearena. Gasteiz ez baita benetako hiriburu literarioa, kontzeptuaren definizio hertsia bagagozkio –hau da, liberalismo politikoa eta aberastasun literarioak uztartzen diren lekua. Izan ere, Madril bera ere ez baldin bada erabat hiriburu literarioa¹, nola izango da, ba, Gasteiz ?

¹ Hona zer dioten Pascale Casanova frantsesak Madrid-Bartzelona bionomioari aplikatu dakiokeen pasarte batean (berak honako binomioak proposatzen ditu : Varsovia-Krakovia ; Atenas-Tesalonika ; Pekin-Shangai ; Madrid-Bartzelona ; Rio-Sao Paolo) : « zenbait espazio literario nazionaletan erakunde literarioen autonomia erlatibo bi hiribururen presentzian (eta borrokan) nabaritzen da, batak –gehienetan zaharragoa– botere, funtzio eta ondasun politikoak bereganatzen dituelarik –bertan literatura kontserbatzaileagoa egiten da, tradizionalagoa, eredu eta dependentzia nazionalari lotua–, besteak –batzuetan askoz berriagoa– maiz portu bat daukan hiria, atzerriari irekia, edo hiri unibertsitarioa izanki modernotasun literarioa aldarrikatzen duelarik, kanpoko eredu literarioen ekarpena » (Casanova, 1999 : 338). Beste pasarte batean, Bartzelona egiazko Espainir hiriburua dela dioten Vazquez Montalbanen hitzak aipatzen ditu.

EUSKAL HIRIAK

Hemen aipatu ez dugun korrante bat ere existitzen da eskal literatura garaikidean. Euskal idazleak saiatu dira bertako hiriei prestigio literarioa eransten, izate artistiko bat kutsatzen, literaturan integratuz, literarizatuz, berauen erromaneskotasuna aldarrikatuz, mito literario bihurtuz. Hots Joyce batek Dublinekin egin zuena errepikatzen ahalegindu eta ahalegintzen dira euskal idazleak oraindik ere², Parisen modura « mila eleberridun hiria » bihurtu dadin euskal hiria. Baina hor dago kokxa, zein hiri ?

Donostia ? Euskal Herriko hiriburu euskaldunena izanki eta hizkeraz azken hamarkadetan nagusitu den euskara eredutik hurbilen dagoena, Donostia litzateke behar bada euskal hiriburu literario naturalena. Areago aintzat hartzen bada euskarazko argitalgintzaren –eta bereziki argitalgintza literarioaren– kokagune nagusia dela. Lorpenik handiena Donostia literaturizatze bide horretan, agian, Saizarbitoriarena da. Baina Saizarbitoriaren obran bertan soma daiteke Donostiaren handicap sorta : glamourrik izatekotan, Donostiaren glamourra ez da preseski bere alderdi euskaldunarena, gainera bere iraganean sakonegi erroturik bizi den hiria da arteari dagokionez eta ezin esan benetan liberala denik bertako giroa. Burges dekadentea izatera ozta-ozta iristen baita.

Horregatik, akaso, 60eko hamarkadan hasi zen mugimendu bat euskal letretan Bilbo bilaka zedin euskal hiriburu literarioa. Honetan aintzindari Aresti izan zen eta Atxagak Pott bandaren garaiean Bilbora bizitzera joanez joera honen oinordekotza aldarrikatu zuen. Egungo zenbait eleberriegile berri saiaturen dira mito hau lantzen –Iturriagaren *Berandu da gelditzeko* edota Belmonteren *Hamar urte barru* datozkigu boteprontoan oroimenera–, gehienetan Bilbo zikina (drogarena, militantzia klandestinoarena, langabeziarena) erakutsiz, baina Bilboren ahulezia handiena bere izaera erdalduna da, dudarik gabe. Behar bada Euskal Herriko hiririk hiriena da, baina ezin horraatik euskal literatura inkarnatu.

Iruñeak ere azken urteotan bizi du bere urrezko aroa, Epaltza, Alonso eta « sandwich belaunaldi »ko partaide batzuren eskutik, baina gure geografiko hiririk anti-liberalena eta probintzialena dugu agian berau eta nekez lor

² Pascale Casanovak azaltzen duenez : « Joyce idazle irlandarrarentzat, existentzia literarioa ematea hiriburu nazional bati [Dublini] eremu nazional barruan eramandako borroka baten ekintza zatekeen : erronka estetiko bat aurrera eraman nahi zuen, ekintzaren bitartez, idazkeratik bertatik, irlandar literaturan indarrean zeuden arau eta eredu « baserritar » eta folklorikoekin hautsiz » (Casanova, 1999 : 338).

dezake hiriburu literario estatuturik. Baiona Iruñearen pareko hirixka nahiko euskaldun baina ez oso literarioa (ezta liberala ere) litzateke eta euskal eremuaren periferia metaforizatzeke erabili ohi da egungo literaturan.

Azken urteetan modan jarri den hiria gure literaturan Gasteiz da, dudarik gabe. EAEko botere politikoa bertan kontzentraturik egoteak eta euskal funtzionarioz nahiz ikaslez betetako hiria izateak badu zeresanik fenomeno honetan. Gasteiz hiri nahiko erdalduna izanki berez, bertan bizi diren euskaldunak kanpotik etorriak dira –euskal eremu guztietatik « etorkinak »– eta maila sozio-kultural handi samarrekoak direla esan daiteke. Hori dela eta, hiriko euskaldunei ezin egotzi zaie Donostiarrei egotz lekiekeen itxitasun edota bertakokeria. Zentzu horretan, egiazko euskaldun hiritar bakarrak Gasteiztarrak lirateke. Bestalde herri handi izatetik hiri izatera igarotzen orain dela gutxi hasi denez badu halako birjinitate bat –ez dago ezein tradizio literario ez kultura esklerosagarri loturik gure imaginarioan– erakargarri egiten duena. Nahikoa komentzigarriak dira Montoia batek ala Zaldua batek egindako literaturtze ahaleginak, aipatu gabe euskal rock radikalak utzi zituen aztarna mitologiko eskergarriak. Halere, Bilbok bezala Gasteizek bere erdalerriri izaera kontra dauka eta bestalde beti ikusia izan da, baita geografikoki ere, Euskal Herriaren azken muga bezala. Alde horretatik, gure susmoa da bere siberiar ospea ez diola klimari bakarrik zor, baizik eta bere euskararekiko giro hotzari baizik. Ezin nonbait euskal literatura erabat eroso sentitu Gasteizen.

Aldi berean euskalduna, errekurtsio literarioz aberatsa eta modernoa (hots, liberala) den hiririk ez dago gurean eta, hortik, apika, Atxagaren euskal hiriaren kontzeptua : kontzeptu horrek euskal hiriek duten hoberena espazio utopiko batean bildu nahi litzuke benetako hiriaren antza edukiko lukeen zerbait osatu ahal izateko, mentalki bederen. Esan daiteke gaur egun euskal hiria euskarazko literaturan baino existitzen ez den espazio abstraktu bat dela eta ez da hain gutxi. Hiriburu literarioaren izpiritua hor dago, bitartean, gure autoreen eleberrien eta olerki liburuen orrialdeetan flotatzen, balizko gorputz fisiko baten zai. Halakorik gorpuzten ez den bitartean beti izango dugu gure literaturan atzerriko hiriburu literario handietara edo auzo Espainiako hiriburu nazionalera unibertsaltasun bila jotzeko beharra edo tentazioa artikulu honetan azaltzen saiatu garenez.

BIBLIOGRAFIA

ATXAGA, *Zintateaz I-II*, Donostia, Kriselu, 1976 (réédité par Erein en 1986, 154 p).

CANO, Harkaitz, *Piano gainean gosaltzen*, Donostia, Erein, 2000, 187. or.

CASANOVA, Pascale, *La République mondiale des lettres*, Paris, Seuil, 1999, 493. or.

DICTIONNAIRE DE LA PSYCHANALYSE, Paris, Encyclopædia universalis-Albin Michel, 1997, 919. or.

MONTOIA, Xabier, *Denboraren izerdia*, Donostia, Elkar, 2003, 221. or.

OLASAGARRE, *Ezinezko maletak*, Zarautz, Susa, 2004, 249. or.